

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

55. zenbakia

Data 2008-03-18

8400 orria

7 UDAL ADMINISTRAZIOA

UDAL MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA-DONOSTIA

Erregelamendu eta antolakuntzari buruzko iragarkiaren akats zuzenketa.

DONOSTIAKO UDALA

Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskola

Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolaren Antolamendu eta Funtzionamendu Araudia behin betiko onartzea.

Okerren zuzenketak

Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolaren Antolamendu eta Funtzionamendu Araudiaren behin betiko onarpena argitaratu zuen 2005eko otsailaren 25ean Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEKO 38. alean akatsak daudenez gero, horiek zuzentzeari ekin beharra dago.

4. artikulua.

Kide anitzeko organoak atalean gehitu beharrekoa: «a) Erakunde autonomoko Zuzendaritza Batzordea».

Kide anitzeko organoak atalean aldatu beharrekoa: (a) azpiatalaren letra (b) izatera pasako da; (b) bihurtuko da (c) eta hala, hurrenez hurren, (i) azpiataleraino, hura (j) izango baita.

9. artikulua, 1. atala.

— *Hau dioen tokian:*

«1. Erakunde autonomoaren zuzendariak, lehendakari moduan, bilkurak deituko ditu, haietarako gai zerrendak ere prestatuta».

— — *Hau behar luke:*

«1. Erakunde autonomoaren zuzendariak, lehendakari moduan, bilkura arruntak deituko ditu, haietarako gai zerrendak prestatuta, astebete lehenago, behintzat; ohiz kanpoko bilkurak izanez gero, ordea, bi egun lehenago deituko ditu, salbuespen izango direla presazko ohiz kanpoko bilkurak, halakoak presaz deitu beharra Kontseiluak berak berretsi beharko duelako».

14. artikulua, 2. atala, bigarren tartekia.

— *Hau dioen tokian:*

«2. Klaustroa legez eraturat joko da irakasle guztion heren bat bertaratz gero. Quorumari eutsi beharko saio bilkura osoan erabakiak legezko izan daitezten. Nolanahi ere den, zuzendariak eta idazkariak edo beren legezko ordezkariak nahitaez egon beharko dute».

— *Hau behar luke:*

«2. Klaustroa legez eraturat joko da irakasle guztion heren bat bertaratz gero. Quorumari eutsi beharko diote bilkura oso-osoan erabakiak legezkoak izateko. Nolanahi ere den, zuzendariak eta idazkariak edo beren legezko ordezkariak nahitaez egon beharko dute».

16. artikulua, 1. atala.

— *Hau dioen tokian:*

«1. Klaustrokideen ohiko bilerak, gutxienez, astebete arinago deitu behar dituzte, gai zerrenda lagun, eta ohiz kanpokoak, bi egun lehenago».

— *Hau behar luke:*

«1. Klaustrokideen ohiko bilerak, gutxienez, astebete arinago deitu behar dituzte, gai zerrenda lagun, eta ohiz kanpokoak, bi egun lehenago, salbuespen izango direla presazko ohiz kanpoko bilkurak, halakoak presaz deitu beharra Kontseiluak berak berretsi beharko duelako».

18. artikulua, 1. atala, lehen paragrafoa.

— *Hau dioen tokian:*

«1. Eskolako kide anitzeko organo horretako kide izango dira honako lagun hauek: Erakunde

autonomoaren zuzendaria, ikasketa burua, departamentu buruak, administrazio unitatearen burua, liburutegiaren ordezkaria eta eskolako idazkari akademikoa.

(...)».

— *Hau behar luke:*

«1. Eskolako kide anitzeko organo horretako kide izango dira honako lagun hauek: Erakunde autonomoaren zuzendaria, ikasketa burua, departamentu buruak, administrazio unitatearen burua, liburutegiaren arduraduna eta eskolako idazkari akademikoa.

(...)».

20. artikulua, 2. atala, bigarren paragrafoa.

— *Hau dioen tokian:*

«2. (...)

Ohiko bilkurak astebete arinago deituko dituzte eta, ohiz kanpokoak, bi egun lehenago».

— *Hau behar luke:*

«2. (...)

Ohiko bilkurak astebete arinago deituko dituzte eta, ohiz kanpokoak, bi egun lehenago, salbuespen izango direla presazko ohiz kanpoko bilkurak, halakoak presaz deitu beharra Batzordeak berak berretsi beharko duelako».

60. artikulua.

11. atal berri bat erantsi beharra dago:

«(...)

11. Gobernu organoen erabakiekin ados ez egotea.

Desadostasuna ikastera ez joateko proposamenaren bitartez adierazi nahi izanez gero, honako baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Eskolara ez joateko proposamena, nolana ere den, ikasleen partaidetza espezifikoa artikulatzen duen organoak egin beharko du, dela berberaren ekimenez, dela ikastetxean matrikulaturiko ikasleen % 5ek, - gutxienez, edo legez eraturako ikasleen elkarteek edo asanbladek eraginda.

b) Eskolara ez joateko proposamena, behar bezala arrazoitua, deitzaileek xedaturiko eguna baino bi lanegun lehenago aurkeztu beharko dute, idatziz, ondokoak adierazita: Deitzailea, eguna, ordua eta egin nahi dituzten ekintzak.

c) Salbuespen moduan, lanegun bat lehenago ere egitea izango da, deitzaileek presazko zioak funtsatu beharko dituztela.

d) Ikasleek Eskolan duten partaidetza egituratzen duen organoak berehala jakinaraziko dizkeo proposamenak Eskolako Zuzendaritzari eta ikasleei.

e) Eskolara ez joateko proposamena bozkatzeko aurkeztu beharko diete ikasleei, bozketa sekretuan eta gehiengo osoz onar edo gaitzets dezaten, ordezkarien edo delegatuen ahotik eskolara ez joateko arrazoiren informazioa jaso ondoren.

f) Bozketen aktak egin beharko dituzte, ikasleen partaidetza egituratzen duen organoaren kide batek sinatuta, honako hauek jasota:

Tokia, hasiera ordua, ikasle kopurua, partaideak, aldeko-aurkako botoak eta abstentzioak, bozketaren emaitza, eskolara joateko proposamena onartzen den ala ez berariaz adieraztea, eta amaiera ordua.

g) Ikasleen partaidetza artikulatzen duen Organoaren buruak aktak berehala helaraziko dizkio Eskolako Zuzendaritzari, ahal dela, 24 ordu lehenago, nahiz eta presazko ziorik izanez gero, epea 12 ordukoa izan daitekeen.

h) Eskolako Zuzendaritzak prozedura osoaren berri emango dio Eskola Kontseiluari, eta hark bermatu beharko du hurrengo ataletan xedaturako ondorioetarako behar bezala betetzea.

i) Eskola huts egitea, aurreko atalean xedaturiko baldintzen arabera izanez gero, ez da kontuan izango diziplina araubidearen aldetik, baina adingabeko ikasleen gurasoei edo legezko ordezkariari jakinaraziko die Eskolak telefonoz.

j) Nolanahi ere den, Eskolak bermatuko du eskola huts egitearekin ados ez dagoen ikaslea eskolan irakasleekin egon ahal izatea irakasgaiari dagozkion ekintzak lantzen.

k) Ikasleek eskolara ez joateko eskubidea erabiltzeak ez ditu irakasleak behartzen eskola huts egiteak

eskola programan eragindako zatiaren azalpenak errepikatzeraz».

III. TITULUA «Ikasleak», 2. atala «Greba eskubidea».

2. atalek kendu beharrekoa da «Greba eskubidea».

61. artikulua.

Kenduta geratuko da, haren edukia 60. artikuluko 11. atal berriari erantsita egongo baita.

62. artikulua.

Zenbakiak aldatu behar dira. 61. artikulua izatera pasako da.

Kokalekuz aldatuko da. Aurrerantzean Ikasleak izeneko III. Tituluko Eskubide eta Eginbeharrak deritzon 1. atalaren parte izango da.

63. artikulua.

Zenbakia aldatu behar da. 62. artikulua izatera pasako da.

Kokalekuz aldatuko da: Aurrerantzean Ikasleak izeneko III. Tituluko Eskubide eta Eginbeharrak deritzon 1. atalaren parte izango da.

III. TITULUA «IKASLEAK», 3. ATALA. Diziplina araubidea.

Atalaren zenbakia aldatu beharra dago: 2. atala, Diziplina Araubidea, izango da.

64. artikulua. 63. artikulua izatera pasako da.

65. artikulua. 64. artikulua izatera pasako da.

66. artikulua, 2. atala, lehen paragrafoa.

65. artikulua izatera pasako da.

— *Hauxe dioen tokian:*

«2. Arau hauste arinak hilabeteko epean iraungiko dira, larriak bi hilabeteko epean eta larri-larriak lau hilabeteko epean, egin egunetik aurrera.

(...)».

— *Hau behar luke:*

«2. Arau hauste arinak hilabeteko epean iraungiko dira, larriak hiru hilabeteko epean eta larri-larriak sei hilabeteko epean, egin egunetik aurrera.

(...)».

67. artikulua. 66. artikulua izatera pasako da.

68. artikulua. 67. artikulua izatera pasako da.

69. artikulua. 68. artikulua izatera pasako da.

70. artikulua. 69. artikulua izatera pasako da.

71. artikulua. 70. artikulua izatera pasako da.

72. artikulua. 71. artikulua izatera pasako da.

73. artikulua. 72. artikulua izatera pasako da.

74. artikulua. 73. artikulua izatera pasako da.

75. artikulua. 74. artikulua izatera pasako da.

Halaber, 6. atalean.

— *Hau dioen tokian:*

«(...)

6. Matrikulatzerakoan aurkeztu beharreko dokumentuak:

* Famili Liburuaren edo nortasun agiriren (NAN, pasaporte edo baliokidea) baten fotokopia.

* Karneterakoan tamainako argazki bat.

* Familia ugariaren tituluaren fotokopia eguneratua».

— *Hau behar luke:*

«(...)

6. Matrikulatzerakoan aurkeztu beharreko dokumentuak:

* Famili Liburuaren edo nortasun agiriren (NAN, pasaporte edo baliokidea) baten fotokopia.

* Karneterakoan tamainako argazki bat.

* Familia ugariaren liburuaren fotokopia eguneratua».

76. artikulua. 75. artikulua izatera pasako da.

77. artikulua. 76. artikulua izatera pasako da.

Denok jakitun jartzeko argitaratua.

Donostia, 2008ko martxoaren 10a.—Mikel Mate Ormazabal, Zuzendaria.

(859) (2982)